


## NEMESIO ETXANIZ ARANBARRI (1899-1982)

Euskal idazleon mundu tipi honetan galera handia izan da Don Nemesio Etxaniz-zen heriotza. Gerraondoko ekintzetan behinikpehin lehen mailako idazlea izan zen. Berak gehien landu zituen alorrak: olerkia, kanta, antzerkia, irratsaioa eta ipuiak izan ziren. Horrez gainera, zenbait itzulpen ere egin zituen, eta euskaraz ikasteko metodo bat ere bai. Lan gaitza Don Nemesiok urte larrietan burutu zuena. Batzuren ustez kaxka-gogorra bazen ere, hala behar urte ilun haietako euskaraz eta euskararen alde lan eginaz jasango baziren. 1982.eko Urtarrilaren 27an Donostiatik heldu zitzaigun euskaltzaleok tristuraz bete ginuzen berri beltza, Don Nemesio hil zela.



Nemesio Etxaniz Aranbarri

Don Nemesio Etxaniz, Azkoitian etorri zen mundura 1899.eko Abenduaren 19an. Lehen ikasketak beraren herrian egin ondoren, Lekarotzen eta Comillas-en es-tudiatu zuen hogetabost urterako apez egiteko. Ordurako euskaraz idazten hasia zen. *Arraldea* zeritzan kontu zaharra, Argia asterokoan lehenik eta liburuxka bezala gero, 1923an argitaratu zuen. Handik hiru eta lau urtetara, Euskal-Esnalea-ren ipuin sariak jaso zituen *Olentzero* eta *Katuin zuloa*-rekin. Baina, beraren ekintza nagusia, esan be-zala, gerraondokoa izan zen.

Nori berea emateko orduan, erabili zituen izenordeak kontuan hartzekoak dira: Erratzu, Artiz'tar Xabier, Maximo Gisasola eta Amillaitz bereziki, eta lanik gehienak argitaratu zituen aldizkariak ditugu *Argia*, *Euskal Esnalea*, *Euzko-gogoa*, *Egan*, *Zeruko Argia*, *Olerti* eta abar.

1950ean *Nola idatzi euskeraz?* liburuxkarekin orduko gazteei laguntza ona eskaini zien hasieratzat. Urte bete geroago *Kanta-kantari* zeritzan liburua eman zuen, jolas eta kantak ikasteko egina. Beste urtebeteren epean, 1952an, bi antzerki-dun liburuxka, *Izoko aberatsa* eta *Irulearen negarra*, bata umorezkoa eta bestea tra-jikoa, euskara errazez eta elkarrizketa bizkorrez. Beste urte betera *Kristau Ikasbidea bertsoan* (1953). Ondorean, garai hartarako hain harrera ona izango zuten antzerki eta ipuiekin jarraitu zuen, *Euskal antzerkiak - Kontu-kontari* (1958) zeritzan libu-ruan beste lau antzerki eskainiaz (horien izenburuak: *Gabak zekarren eguna*, *Maitere... neurritz*, *Zotzean bizia* eta *Gabon-zauria*) eta bi ipuin luze (bata P. MÉRIMÉE-ren Mateo Falcone eta bestea D. Nemesio beraren Ollasko-iturri). Antzerki horietako batzuk errepresentatuak izan ziren.

Itzulpenetan ordea, Prosper MÉRIMÉE-ren ipuinaz gainera Juan Ramón Jiménez eta Gabriela Mistral-en poesiak, P. Volboudt-ren *Txillida* (1967); Ruiz de Añibarroren *Mujeres de Berrigorria* antzerkia *Ito... edo ezkondu* (1968) izenburuz; Jacques Bondallaz-ek laburpenez eta irudiz haurrentzat prestatu zuen Biblia zaharra, *Itun zarreko kondaira* bi liburuxkatan (1956-1960); J. Leuwellen, I. Shapiro-ren *Egazki-ñen mundua* (1969); E. J. Werner-en *Gure lur osoaren lutelestia* (1971); C. A. Cornejo-ren *Aladino*, J. Gaztañagaren laguntzaz (1975); eta C. A. Cornejo egile beraren *Muntxausen'go baroia*, J. Larrañagaren laguntzaz (1975). Horiez gainera, Katekesirako ere zenbait itzulpen egin zituen, besteak beste, *Itun berria* ere bai, komikakin haurrentzat gertatua, lehenago Itun zaharrarekin egin zuen bezala.

*Lur berri billa* (1967) haren lanen muestra gisako bilduma bat baizik ezta. Lan-du zituen jeneroetatik zerbait agertzen duena: antzerki, eleberrri labur, ipuin, irratsaio, olerki eta kanta. Bere poemarik luzeenetako bat Iparragirreri eskaini zion "Euskal egazi" izenez, 24 bertsoz osatua eta liburu hortan bildua. *Lur berri billa* argitaratuz laster hara zer zioen Pierres Lafitte jaunak *Herria* astekarian (867. zenb., Martxoaren 16-koa, 1967):

"Liburu berria deitzea hartzen du, ez otsail huntan sortu delakotz bakarrik, bai-nan eskurari bide berriak idekitzen diozkalakotz. Maizegi eskual liburuek xahar aire emaiten dute, oraiקותasunik ez ukanez.

"Etxaniz jauna baino berrizaleagoak badirela gure idazle gaztetan, aitortuko dugu. Bainan ez da hau ere gibeltiarra; bethi irakurle gaztez orhoiturik baderama bere lana eta bertze askok baino alegerakiago: harritzeko baita, zonbaitek zoin laket duten minkor eta jauzkor agertzea, auhena eta etsimendua dariozkatela! Iduri-eta zinkurrinez kanpo ez daitekela literatura onik...

“Gure “Amillaitz” dena bihotz da, bainan ez da keldarzalea eta aise bazterten ditu kireskeriak. Bizia maite du eta haren idaz-lanak dena olde dira.”

Horrez gainera, D. Nemesio Etzanizek, bere obretan, beti agertzen zuen garai hartako idazleetan hain nekez nabari zen bizitasuna. Beraren olerkigintzaren goi mailak berrogetahamargarren dekada hartan ezagutu zuen. Garai berean idatziak dira euskarazko lehen irratsaioak ere. Handik laster burutu zuen euskaraz ikasteko CCC-ren *Método radiofónico* (Donostia, 1961) hura ere. Urte haietako kultur aldizkarietatik ikus dezakegunez, D. Nemesio ez zen loak egon, egile eta eragile izan zen, eta garaiko giroagatik eta euskaltzaletasun suharraren eraginez, modan jartzen ziren kanta berriei euskarazko letra jartzen zion eta maiz ber berak kantatzen zituen, nahiz ospakizunetan edo nahiz plazetan; berrikeriak euskaraz azaltzeko ez bai zuen inongo lotsarik.

Beraren izakeraz ez zen inolako molde edo arau hertsietan sar ahal izateko gizona. Artista eta liberal jitea zuen. Honegatik, gerraondoko gure literatur ekintzak zuzpertzten eta era berritzen gizon prestua izan zen. Labegeri zenak berak baino lehen eman zion euskal kanta berriari hasiera, ez bakarrik soinu berriak hartzez, baizik soinu berriak asmatzen ere bai. Eta, besteak beste, gerraondoko giro itogarri hartan, Gipuzkoako gobernadoreei egin zizkien gutun publikoak hots handia izan zuten eta herri kontzientzia sortzaile euskaldun askoren baitan. Eta, gauza guztien gainetik, D. Nemesiori inork ukatu ezinezkoa, beraren zintzotasun gardena.

1955. urtetik Euskaltzaindiko urgazle zen eta, 1979an, ohorezko izendatu zen.

Goian bego gure adiskide maitea.

*J. San Martin*